Negociamos y verificamos por Ud. para obtener la mejor valoración y condiciones contractuales.
Además, le acompañamos y asesoramos en todo el proceso hasta la perfecta formalización de la operación.

| | Edad (años) | Valor Tasación Vivienda 300.000€ | 350.000€ | 400.000€ | 450.000€ | 500.000€ |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | €/mes | €/mes | €/mes | €/mes | €/mes |
| Hombre | 70 | 500 | 583 | 699 | 798 | 897 |
| Mujer | 70 | 455 | 530 | 643 | 733 | 824 |
| Hombre | 75 | 655 | 770 | 910 | 1.036 | 1.161 |
| Mujer | 75 | 595 | 700 | 829 | 944 | 1.059 |
| Hombre | 80 | 880 | 1.025 | 1.203 | 1.367 | 1.531 |
| Mujer | 80 | 723 | 844 | 1.091 | 1.240 | 1.389 |
| Hombre | 85 | 1.210 | 1.410 | 1.534 | 1.742 | 1.949 |
| Mujer | 85 | 1.090 | 1.136 | 1.393 | 1.581 | 1.770 |

Datos orientativos basados en la estadística de esperanza de vida de los distintos sexos



Rentabienestar
El valor de la tranquilidad
GRUPO COSEGUR

Tel.: 944 165 844 - rentabienestar@cosegur-cs.com - Rodríguez Arias, 6 - 5ª Plta. 48008 Bilbao (detrás del Hotel Carlton) - www.cosegur-cs.com

# *COUCHÉ PAPERAREN HEROIAK*

# HEROES DE PAPEL COUCHÉ

Ana Bermejo Arteagabeitia.
**Abokatua/Abogada.**

***Oraintsu, berriro ere, Jesús Neira modu jarraitu eta konplizean protagonista duen komunikabideetako ikuskizun negargarria ikusi dugu; Jesús Neira unibertsitateko irakaslea da eta curriculumean ez du lanbide meritu berezirik Madrilgo Erkidegoko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Kontseilaritzako Genero Indarkeriaren Erregio Behatokiko Kontseilu Aholkulariko burua izateko. Gainera, organo hori oso birtuala da eta komunikabideei lotuta dago, eta horren erakusgarri da aurretik zegoen burua antzezlan batean bezala desagertu zela eta Jesús Neira buru berria bihurtu zela.***

*Organo hori bat-batean desegin zuten –agintariek beste arrazoi batzuk alegatu arren-. Gertaera horrekin batera beste bat gertatu zen: irailaren 1ean, gaueko 22:00ak aldera, Polizia Nazionaleko inspektore batek, M-40ko 5. kilometroan, auto bat alderik alde zihoala eta ia-ia kamioi bat jo zuela ikusi zuen.*

*Agenteak, lanean egon ez arren, Neira geldiarazi zuen eta Guardia Zibilari deitu zion. Alkoholimetroaren emaitza arnastutako airean 0,87 miligramo izan zen, hau da, Neirak gidatzeko baimendutako tasa (0,25) hirukoizten zuen. Hori dela eta, atxilotu eta Pilar auzoko polizia-etxera eraman zuten bidesegurtasunaren aurkako delitua egiteagatik. «Alkoholemia sintoma nabarmenak zituen, eseak egiten zituen eta autoek galgatu behar zuten», esan zuen agenteak.*

*Madrilgo Erkidegoko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Kontseilaritzako Genero Indarkeriaren Erregio Behatokiko Kontseilu Aholkularia 2004ko otsailean sortu zuten dekretu bidez.*

*Cristina Alberdi ministro ohia organo horren buru izan zen. Organoaren xede nagusia genero-indarkeriaren kontrako borrokara bideratutako jardunak proposatzea da.*

*Neira jaunak, aipatu organoko lehendakaritza lortzeko izan zuen lanbide-meritu bakarra hau da: bidegabeko eraso bat jasatea eta ondoren zalantzazko eraginkortasuna izan zuen medikuntza-laguntza izatea. Neira jaunaren hitzetan, itxuraz tratu desegokia jasaten ari zen emakumezkoari laguntzea zen bere asmoa, baina emakume horrek behin eta berriro esan zuen, telebistako ikuskizun bera osatuz, ez zuela tratu txarrik hartu.*

**En fechas pasadas hemos asistido a un episodio mas del lamentable espectáculo mediático del que forma parte de manera continuada y cómplice Jesús Neira; un profesor universitario, sin ningún mérito profesional específico en su currículum que le acredite como especialista cualificado para presidir el Consejo Asesor del Observatorio Regional de la Violencia de Género de la Consejería de Presidencia, Justicia e Interior, de la Comunidad de Madrid, un órgano tan virtual y mediático como el mismo sujeto que lo presidía tal como demuestra su inmediata desaparición.**

El suceso que mantiene una curiosa coincidencia en el tiempo con la fulminante desmantelación del órgano, -a pesar de la alegación de otras causas, por parte de las autoridades,- ocurrió sobre las 22:00 horas del día 1 de Septiembre, cuando un inspector de la Policía Nacional que circulaba por la M-40, a la altura del kilómetro 5, vio que un coche iba dando bandazos y llegando incluso a rozar a un camión.

El agente, a pesar de estar fuera de servicio, obligó con su coche a parar a Neira y llamó a la Guardia Civil. El alcoholímetro dio como resultado 0,87 miligramos por aire aspirado, lo que significa que Neira triplicaba la tasa permitida para la conducción, por lo que fue detenido y trasladado a la comisaría del Barrio del Pilar por un delito contra la seguridad vial. «Presentaba síntomas evidentes de alcoholemia, iba haciendo eses y los coches se veían obligados a frenar», declaró el agente.

Dependiente de la Consejería de Presidencia, Justicia e Interior de la Comunidad de Madrid, el Consejo Asesor del Observatorio Regional de la Violencia de Género fue creado por un decreto de febrero de 2004.

La ex ministra Cristina Alberdi presidió previamente ese órgano entre cuyos principales objetivos figuran proponer actuaciones orientadas a la lucha contra la violencia de género

El Sr Neira. que fue presidente del citado órgano accedió al tal cargo con el único mérito profesional de haber sufrido una injusta agresión y una atención médica posterior de dudosa eficacia, cuando intentó impedir un trato, al parecer, inadecuado a una mujer que, sin embargo, afirmó una y otra vez, formando parte del mismo espectáculo televisivo que el propio Neira, que no estaba siendo maltratada.

A partir de esos hechos la perversión periodística, política y social envuelve a este personaje, interesadamente, en un halo de heroicidad, del que sacan provecho económico los gurús televisivos que se erigen en defensores de las causas de la mujer desvirtuando, en ocasiones, la verdadera lucha social, policial, pedagógica y jurídica de los auténticos especialistas. Halo de heroicidad del que sacan provecho, también, los políticos otorgándole la presidencia de un órgano dependiente de la Consejería de Presidencia, Justicia e Interior de la Comunidad de Madrid formalizando, en opinión de los más suspicaces, un negocio transaccional para evitar escandalosas denuncias por una supuesta negligencia de los servicios sanitarios de la Comunidad de Madrid, o en opinión de otros, aprovechando, simplemente, la repercusión mediática con fines electorales

Halo de heroicidad del que ha sacado un enorme provecho económico su protagonista, que ha recibido la Medalla de Oro de la Comunidad de Madrid, el Premio Derechos Humanos 2008 y la Medalla de Oro del Senado, que ha publicado en Marzo de 2010 el título "España sin democracia" y que comenzó a formar parte de tertulias radiofónicas y televisivas como voz especializada, no ya en temas de violencia contra la mujer, sino en todo tipo de materias de índole social, política y cultural ejerciendo una portavocía de las ideas conservadoras más radicales respecto a la tenencia de armas, al sistema democrático, a la eficacia del poder judicial, ls partidos políticos de izquierdas y los nacionalismos, utilizando continuamente, el insulto, la descalificación y la polémica como medio para mantener el interés del espectáculo televisivo, en la línea de cualquier tertuliano de prensa rosa, aunque le pese, pero con más soberbia y exageradas e inapropiadas pretensiones intelectuales.

Ante esta situación hemos de hacer una severa reflexión sobre la necesidad de buscar héroes que nuestra sociedad reitera y la facilidad con que estos nos son proporcionados por el gran poder de la prensa, con los más diversos objetivos. Estos son a veces torticeros y manipuladores, a veces más inocentes y de mercado, con la cotidiana y simple intención inicial de crear noticias de actualidad que, finalmente, crecen demasiado hasta convertirse en fenómenos de dimensiones incalculables. Otras veces pretenden distraer de una realidad que decepciona, pero una y otra vez consiguen atraer atención, adeptos y seguidores y poco tiempo después la misma voracidad informativa que eleva a los héroes a aquellos fugaces altares, descubre la debilidad del gran héroe, la debilidad ética, física, la debilidad intelectual y aquellos que ensalzaron sin ambages la figura del elegido, tiran piedras después contra su nombre, convirtiéndolo en una víctima, a veces peligrosa, muy peligrosa, del perverso espectáculo de algunos medios informativos.

*Gertaera horiek oinarri hartuta, kazetaritzaren, politikaren eta gizartearen perbertsioari esker pertsonaia honek heroiaren itxura hartu zuen, eta horretatik telebistako guruek probetxu ekonomikoa lortu zuten, emakumearen arrazoien defendatzaile moduan agertu baitziren, benetako espezialisten benetako gizarte- eta polizia-borroka eta borroka pedagogiko eta juridikoa balio gabe utziz. Heroitasun horretatik politikariek ere probetxua atera zuten, eta Madrilgo Erkidegoko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Kontseilaritzaren mendeko organo baten buru jarri zuten. Mesfidatienen ustez, negozio transakzionala egin zen horrela, Madrilgo Erkidegoko osasun-zerbitzuek ustez egindako zabarkeriaren ondorioz salaketa iskanbilatsurik ez izateko. Beste batzuen ustez, komunikabideetako oihartzuna hauteskunde xedeekin aprobetxatu nahi zen.*

*Heroitasun horretatik protagonistak probetxu ekonomiko handia atera du, Madrilgo Erkidegoko Urrezko Domina, 2008ko Giza Eskubideen Saria eta Senatuko Urrezko Domina lortu baititu. 2010eko martxoan "España sin democracia" lana argitaratu du eta irratiko eta telebistako solasaldietara deitu zuten ordezkari espezializatu moduan, ez emakumeen aurkako indarkeria kontuetan, ezpada gizarteko, politikako eta kulturako edozein gairen inguruan. Muturreko ideia kontserbadoreak adierazi zituen armen edukitzari, sistema demokratikoari, botere judizialaren eraginkortasunari, ezkerreko alderdi politikoei eta nazionalismoei buruz, eta behin eta berriro iraina, deskalifikazioa eta polemika erabili zituen telebistako ikuskizunaren interesa mantentzeko, prentsa arrosako edozein solaskideren ildotik, baina harropuzkeria handiagoarekin eta neurriz kanpoko asmo intelektual desegoki gehiagorekin.*

*Egoera horren aurrean, gogoeta zorrotza egin behar dugu gure gizarteak eskatzen dituen heroiak bilatzeko beharrari buruz eta prentsaren botere handiak heroi horiek emateko duen erraztasunari buruz, helburuak askotarikoak izanda. Asmo horiek nahasiak eta manipulatzaileak izaten dira batzuetan, inozenteagoak eta merkatukoak beste batzuetan, eta hasieran gaurkotasuneko albisteak sortzeko asmo bakarra izaten dute, baina azkenean hazi eta hazi egiten dira eta kalkulatu ezin diren neurriko fenomeno bihurtzen dira. Kasu batzuetan etsipena sortzen duen errealitatetik aldendu nahi izaten gaituzte, baina behin eta berriro atentzioa deitzea lortzen dute, eta handik gutxira, heroiak aldarera jasotzen dituen asezintasun informatiboak heroi handiaren ahultasuna argitara ateratzen du, ahultasun etiko, fisiko eta intelektuala, eta hautatuaren irudia aho betean goratu zutenek haren aurka harriak jaurtitzen dituzte, komunikabide batzuetako ikuskizun maltzurraren biktima bihurtuz, biktima oso arriskutsua batzuetan.*

# *ABOKATUTZA INDEPENDENTEA*

# ABOGACÍA INDEPENDIENTE

Antonio J. Perdices Mañas.
**Abokatua/Abogado.**

***Gizarteak askotan eta guk geuk batzuetan ahaztu egiten dugu abokatutzan aritzea, gure Estatutu Orokorraren 1. artikuluaren arabera, hurrengoa dela:***

> *"... una profesión libre e independiente que presta un servicio a la sociedad en interés público y que se ejerce en régimen de libre y leal competencia, por medio del consejo y la defensa de derechos e intereses públicos o privados, mediante la aplicación de la ciencia y la técnica jurídicas, en orden a la concordia, a la efectividad de los derechos y libertades fundamentales y a la Justicia..."*

*Ez da auzietatik bizi, aholkutik baino, eta eskubide eta askatasunak modu eraginkorrean gauzatu daitezen, botere publikoei eta agintariei eskatuko die oztopoak kentzea, oztopo horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute (EKren 9. art., "alterum non laedere" premisaren arabera.*

*Beraz, lanbidea bokaziozkoa da, askatasunez lantzen da eta, batez ere, "independentea" da. Jarduera gure lanbide Bazkunak babesten du, eta administrazio estaldura teknikoa, liburutegi espezializatua eta etengabeko prestakuntza eskaintzeaz gain, Bazkunak arau deontologikoak betetzea eta zerbitzu publikoa ematea bermatzen du (erlijio-intolerantzia duten taldeek haur bati espiotza leporatu eta haur hori hiltzearen aurrean; heriotza-zigorraren aurrena, "exekutatuak" abokatu bat hil arren; Guantánamoko nahierakeriaren aurka, The Guardianen adierazpenarekin bat eginez; Filipinetan turistak bahitzearen aurrean; Mexikon, Argentinan, Ruandan... abokatutzan aritu nahi dutenen jazarpenaren aurrean, etab.) eta justiziara sarbidea izateko haien edo familiakoen mantenua arriskuan jarri behar dutenen artean doako laguntza juridikoa modu solidarioan banatuz.*

### *1838ko uztailak 11*

*Abstrakzio ariketa batean, 1812an, Cádizgo Konstituzioaren ostean, hasten den Espainiako historiaren aldi liluragarria berrikusi dezakegu. Ordutik hamasei konstituzio-aldaketa egin dira (aldizkari famatuaren izenburua bezala). 1833 eta 1868 urteen bitartean geldialdia egingo dugu [1] .*

*Gogoan izan behar da 1833an Fernando VII.a hil zela eta Elisabet alabak hiru urte baino ez zituela. Horren ostean bi erregeordetza egon ziren; lehenengoa, 1833tik 1840ra, Maria Kristina erreginarekin (aldi ho-*

**La sociedad con mucha frecuencia y, a veces, nosotros mismos olvidamos que el ejercicio de la Abogacía es, como dice nuestro Estatuto General en su artículo 1º:**

> *"... una profesión libre e independiente que presta un servicio a la sociedad en interés público y que se ejerce en régimen de libre y leal competencia, por medio del consejo y la defensa de derechos e intereses públicos o privados, mediante la aplicación de la ciencia y la técnica jurídicas, en orden a la concordia, a la efectividad de los derechos y libertades fundamentales y a la Justicia..."*

No vive del pleito, si no del consejo, y buscando la efectividad de los derechos y libertades, instará de los poderes públicos y autoridades la remoción de los obstáculos que impidan el pleno goce de los mismos (art. 9 CE), bajo la premisa "alterum non laedere".

Es, por tanto, una profesión vocacional, de ejercicio libre, especialmente, "independiente", cuya actividad viene amparada por nuestro Colegio profesional, que además de prestarnos una cobertura administrativa técnica, una biblioteca especializada y una formación continua, vela por el cumplimiento de las normas deontológicas y la prestación del servicio público que supone alzar la voz por los que no pueden hacerlo (contra el asesinato de un niño acusado de espionaje por grupos de intransigencia religiosa; contra la pena de muerte aunque el "ejecutado" sea el asesino de un Abogado; contra la arbitrariedad de Guantánamo adhiriéndose al manifiesto de The Guardian; contra el secuestro de turistas en Filipinas; contra la persecución de Abogados que intentan ejercer su labor en lugares dispares como México, Argentina, Rwanda, etc.) o, distribuyendo de forma solidaria la carga que supone permitir el acceso a la Justicia, por medio de la Asistencia Jurídica Gratuita, a aquellas personas que, en otro caso, deberían desatender las necesidades de sustento propio o las de su familia.

### 11 de Julio de 1838

En un ejercicio de abstracción, podemos recorrer el apasionante período de la historia de España que comienza en 1812 tras la Constitución de Cádiz, y que ha llevado a dieciséis cambios constitucionales, (como el titular o cabecera de la afamada revista), deteniéndonos en el lapso de tiempo comprendido entre los años 1833 y 1868 [1].

Hay que recordar que en 1833 fallece Fernando VII y su hija, Isabel, no cuenta más que con tres años de edad. Ello conduce a dos regencias; la primera, de 1833 a 1840,

[1] Para este pequeño recorrido de sensaciones profesionales nos hemos apoyado, entre otros, en el libro "Historia del Ilustre Colegio de Abogados del Señorío de Vizcaya (1838-1992)", redactado por Santiago de Pablo, Amparo Basterra, Javier Cangas de Icaza y José Daniel Reboredo, Editado por el propio Colegio de Bizkaia en 1992, con ocasión del 150 aniversario de la fundación del Colegio, y que obra en nuestra biblioteca.



bajo la autoridad de la reina madre María Cristina (en cuyo periodo se produce la primera guerra carlista) y la segunda bajo la autoridad del general Espartero (1840-1843). En 1843 asciende al trono Isabel II, cuyo reinado se apoya en el partido moderado, hasta que la revolución de septiembre de 1868 hace perder a la Casa de Borbón la Corona española por un espacio de siete años.

La Constitución de Cádiz incluye la división de poderes en nuestro Ordenamiento Jurídico, apartando al poder judicial de las ingerencias de la Monarquía o de las Cortes, como ya predicaba en "El contrato social" el jurista suizo J.J. Rousseau y se plasmaba en la constitución francesa de 1792.

No obstante, la centralización del entramado judicial chocó en parte con la administración de justicia en el Señorío de Vizcaya, que disponía de jueces propios (se impartía conjuntamente por el Corregidor, como representante del Rey, y los diputados forales), tanto en causas civiles como penales, con la posibilidad de acudir ante la sala especial de la Chancillería de Valladolid, en los casos graves o de especial trascendencia.

Por Real Decreto de 26 de enero de 1834 se regulan las Reales Audiencias, en sustitución de las antiguas Chancillerías, encargadas de entender los asuntos penales en primera y única instancia y los civiles en segunda instancia (la primera instancia se realizará por el juez de homónimo nombre, sustituyendo en esta labor a los alcaldes). Todas tenían las mismas atribuciones y eran independientes unas de otras. La Audiencia Territorial de Burgos abarcaba las provincias de Álava, Burgos, Guipúzcoa, Logroño, Santander, Soria y Vizcaya.

El 18 de septiembre de dicho año tuvo lugar la instalación de la Real Audiencia de Burgos y en dicha sesión fue a prestar juramento el nuevo Colegio de Abogados de Burgos, del que consta como acta de constitución el 14 de julio de 1834. Esos primeros Estatutos fueron aprobados por Real Orden de 1 de agosto de 1836.

*rretan lehenengo gerra karlista gertatu zen) eta bigarrena, Espartero jeneralarekin (1840-1843). 1843an Elisabet II.ak tronua eskuratu zuen, eta alboan alderdi moderatua izan zuen. 1868ko irailean Borboiko Etxeak Espainiako koroa galdu zuen zazpi urtez.*

*Cádizgo Konstituzioaren bidez, gure antolamendu juridikoan botere banaketa sartu zen, eta botere judizialetik kanpo utzi ziren monarkiaren eta Gorteen eskuhartzeak. J.J. Rousseau suitzar legelariak "El contrato social" lanean hala iragarri zuen eta 1792ko Frantziako Konstituzioan hala jaso zen.*

*Hala ere, sare judizialaren zentralizazioak zati batean justizia administrazioarekin talka egin zuen Bizkaiko Jaurerrian, bertan berezko epaileak baitzeuden (justizia korrejidoreak, erregea ordezkatuz, eta foru-diputatuek ematen zuten), auzi zibil zein penaletan. Valladolideko Kantzelaritzaren sala berezira jotzeko aukera zegoen kasu larrietan edo garrantzi berezia zutenetan.*

*1834ko urtarrilaren 26ko Errege Dekretuaren bidez, Errege Audientziak arautu ziren, iraganeko Kantzelaritzak ordezkatuz. Auzi penalak horien eskumenekoak ziren lehen auzialdian eta bakarrean, eta auzi zibilak bigarren auzialdian (lehenengo auzialdia izen bereko epaileak egingo du, eginkizun horretan alkateak ordezkatuz). Guztiek eskumen berdinak zituzten eta independenteak ziren. Burgosko Lurralde Auzitegiak Araba, Burgos, Gipuzkoa, Logroño, Santander, Soria eta Bizkaia probintziak barnean hartzen zituen.*

*Urte horretako irailaren 18an Burgosko Errege Audientzia ezarri zen eta Burgosko Abokatuen Elkargo berriak zin egin zuen. Azken horren eratze akta 1834ko uztailaren 14koa da. Lehenengo Estatutu horiek 1836ko abuztuaren 1eko Errege Aginduaren bidez onetsi ziren.*

*1836ko abenduaren 25ean, Espartero jeneralaren laguntzaz, "Bilboko hirugarren setio" izenekoa altxatu zen.*

*[1] Ibilbide honetarako, besteak beste, "Historia del Ilustre Colegio de Abogados del Señorío de Vizcaya (1838-1992)" liburua erabili dugu, Santiago de Pablok, Amparo Basterrak, Javier Cangas de Icazak eta José Daniel Reboredok idatzia. Bizkaiko Jaurerriak argitaratu zuen 1992an, Bazkunaren sorreraren 150. urteurrenean, eta gure liburutegian dago.*

*1837ko uztailaren 11ko Errege Aginduaren bidez, 1823ko ekainaren 8ko Dekretua berriz ezarri zen, eta horren arabera, abokatuek lanbidea erresumako edozein tokitan gauzatu ahal zuten, talde edo elkargo ofizial bateko kide izan beharrik gabe. Hala ere, bidezko xedapenak hartzea ezarri zen elkargoen eta montepioen araubidea atontzeko haien xedera hobekien egokitzen zen moduan.*

*1838ko maiatzaren 28ko Errege Dekretuan 20 abokatu zeuden eta oraindik organismo hori ez zuten herrietan Abokatuen Elkargoak sortzeko baldintzak ezarri ziren.*



*Burgosko Lurralde Audientziako buruak eskatuta, Bilbon, 1838ko uztailaren 11n, abokatuen talde bat bildu zen, José Javier de Goytiak deituta, hiriburuan helbideratutako lizentziaturik zaharrena zen aldetik, eta bera izan zen bilerako buru. Serapio de Urquijo eskribau eta idazkari aritu zen, Bilboko Udalean ere eginkizun hori baitzuen. Bilerara joan zirenek Bilboko Abokatuen Bazkuna eratzea adostu zuten, eta 1974an Bizkaiko Abokatuen Probintzia Bazkuna izena jarri zioten.*

### *1985/12/17-18*

*Bazkuneko gorabeherak, oraintsuko historiaren parekoak, alde batera utziko ditugu goian adierazitako datara arte. Data horretan, elkargokide berrien zina Abokatuen Bazkuneko dekanoaren aurrean egin zen lehenengoz, eta ez Probintzia Auzitegiko presidentearen aurrean. Data hartan jende berri asko sartu zenez, ekitaldia bi saiotan egin behar izan zen. Bitartean, kalean greba orokorra zegoen, Mikel Zabalzaren gorpua agertu zelako.*

*1986ko urtarrilaren 1ean Espainia eta Portugal Europako erkidegoetako kide egin ziren.*

### *Abokatuon independentzia:*

*Eguneroko lanaren zailtasunak gorabehera, abokatutzaren independentzia dela eta, antolamendu juridikoaren eta arau deontologikoen menpe baino ez dago, eta abokatuek haien zientzia eta konpromisoa gizarte bakera egindako ekarpen moduan erabiliko dituzte.*

*Hori dela eta, abokatuak aldarrikatze pertsonalera deituta egonda, eta horrek dakarren lege-eta gizarte-anakronismoaren aurrean, behin eta berriro harritu egiten gara Espainiako Errege Akademiako hiztegiaren azken bertsioan, abokatuaren definizioan, hurrengoa irakurtzen dugunean: "… epaileak alderdi bati esleitutako legelaria, normalean bitarteko ekonomikorik ez duelako…"*

*Zer egin dezakegu gizarteak behar den moduan baloratzeko? Noiz erakutsiko dugu gure benetako independentzia?*

El 25 de diciembre de 1836, con la ayuda del General Espartero, se levantó el denominado"tercer sito de Bilbao".

Por Real Orden de 11 de julio de 1837 se restablecía el Decreto de 8 de junio de 1823, que garantizaba a los abogados ejercer su profesión en cualquier lugar del Reino, sin necesidad de pertenecer a ninguna corporación o colegio oficial, imponiendo, no obstante, que se tomaran las disposiciones pertinentes se arreglara el régimen de los colegios y montes-píos del modo más favorable a su objeto.

El Real Decreto de 28 de mayo de 1838 estableció las condiciones para crear Colegios de Abogados en las poblaciones en las que existiera un número de 20 Abogados y aún no contase con este organismo.

A instancia del regente de la Audiencia Territorial de Burgos se reunió en Bilbao, el día 11 de julio de 1838 un grupo de Abogados, convocados por José Javier de Goytia, por tratarse del licenciado más antiguo de los domiciliados en la capital, el cual presidió la reunión, actuando como escribano y secretario Serapio de Urquijo, que también lo era del Ayuntamiento de Bilbao, y donde los presentes acordaron constituir el Colegio de Abogados de Bilbao, que en 1974 pasará a denominarse Colegio Provincial de Abogados de Vizcaya.

### 17-18/12/1985

Saltamos la avatares del Colegio, parejos a los de la historia reciente, hasta la fecha reseñada. Se trata de la primera vez que la jura de los nuevos Colegiados se realiza ante el Decano del Colegio de Abogados y no ante el Presidente de la Audiencia Provincial. Dado el número de incorporaciones que se produjeron en aquellas fechas el acto hubo de realizarse en dos sesiones, presididas en la calle por la Huelga General en protesta por la aparición del cadáver de Mikel Zabalza.

El 1 de enero de 1986 España y Portugal entran a formar parte de las Comunidades Europeas.

### Visibilización de la independencia:

A pesar de las dificultades del diario trabajo, la independencia de la Abogacía pasa por no someterse más que al ordenamiento jurídico y a las normas deontológicas, aportando su ciencia y compromiso como contribución a la paz social.

Por ello, y sin perjuicio de la reivindicación personal a que estamos llamados los Abogados, ante el anacronismo legislativo y social que supone, nos sigue sorprendiendo que en la última versión del diccionario de referencia para los hispanoparlantes – el de la RAE - aún se defina al Abogado de oficio como el "… Jurista asignado por el juez a una parte, ordinariamente por su falta de recursos económicos…"

¿Qué haremos para que la Sociedad nos aprecie en lo que somos? ¿Cuándo haremos visible nuestra real independencia?



Teresa Uriarte.
**Abogada y Periodista / Abokatua eta kazetaria**

# EXTRACTOS DE LA VIDA EN LOS TRIBUNALES

### JUICIO POR UN MOTÍN EN LA PRISIÓN DE BASAURI

Fiscal a un preso: "¿Cómo pudo darle a usted tiempo de comer (en la prisión) en tres minutos?". Procesado: "Había pollo con lechuga. El muslo me lo comí en dos minutos y la lechuga en uno".

Audiencia de Bilbao, marzo 1990.

### JUICIO POR ROBO

Un chatarrero al que le había robado chatarra por valor de un millón de pesetas escucha al abogado que defiende al ladrón: "En base al "in dubio pro reo..." El chatarrero se vuelve hacia mí y me pregunta indignado: "En base a éso, ¿qué?, ¿que le debo yo algo?"

Audiencia de Bilbao, mayo 1986

### JUICIO POR ESTAFA

Contable acusado de estafar a Hacienda en las cuentas de una Administración de lotería: "Yo sí sabía que las cifras que ponía estaban infladas pero lo que no sabía era la maldad de ponerlas".

Audiencia de Bilbao, junio 1986

### JUICIO POR ROBO Y LESIONES

Abogado defensor al médico forense: "Doctor, ¿le parece a usted normal, desde el punto de vista siquiátrico, que una persona arranque a otra la cadena de oro del cuello con los dientes?"

Audiencia de Bilbao, junio 1986

### JUICIO POR ATRACO

Anciano atracado que ya ha terminado de declarar y está sentado entre el público, se levanta en mitad del juicio y dice en voz alta: "Oiga, ¿puedo decir una cosa?". El presidente amablemente, "sí, diga, diga..."

-"Que el televisor me lo devolvieron, eh?"

Audiencia de Bilbao, julio 1986

### FIRMA

Presidente del Tribunal mostrando un folio del sumario: "¿Es ésa su firma?". Testigo: "Pues sí será porque yo soy una persona que firma a la primera de cambio. Ahora mismo me dice usted que firme éso, pues voy y lo firmo"

Audiencia de Bilbao, mayo 1988

### *BASAURIKO ESPETXEAN IZANDAKO MATXINADA DELA-ETA EGINDAKO EPAIKETA*

*Fiskalak preso bati: "Nola izan zenuen astia (espetxean) hiru minututan jateko?". Auzipetua: "Oilaskoa eta uhaza zegoen. Izterra bi minututan jan nuen eta uhaza minutu batean".*

*Bilboko Auzitegia, 1990eko martxoa*

### *LAPURRETAREN ONDORIOZKO EPAIKETA*

*Txatarra-biltzailea milioi bat pezetako balioko txatarra lapurtu zionaren abokatuari entzun dio: "in dubio pro reo dela bide..." Txatarra-biltzaileak niri begiratu eta haserre esan dit: "Hori dela bide zer? Nik zerbait zor diot?"*

*Bilboko Auzitegia, 1986ko maiatza*

### *MAULAREN ONDORIOZKO EPAIKETA*

*Loteria administrazio bateko kontuetan Ogasunari iruzurra egin omen duen kontularia: "Nik banekien jarritako zifrak puztuta zeudela, baina ez nekien hori jartzea gaiztakeria egitea zenik".*

*Bilboko Auzitegia, 1986ko ekaina*

### *LAPURRETAREN ETA LESIOEN ONDORIOZKO EPAIKETA*

*Abokatu defendatzaileak mediku forentseari: "Ikuspuntu psikiatrikotik normala iruditzen zaizu pertsona batek beste bati urrezko katea hortzekin lepotik kentzea?"*

*Bilboko Auzitegia, 1986ko ekaina*

### *LAPURRETAREN ONDORIOZKO EPAIKETA*

*Lapurreta jasan duen adinekoak deklaratu du eta jendartean eserita dago, epaiketaren erdian altxatu da eta ozen esan du: "Aizu, esan dezaket gauza bat?". Presidenteak adeitsu, "bai, esan, esan..."*

*-"Telebista itzuli egin zidaten"*

*Bilboko Auzitegia, 1986ko uztaila*

### *SINADURA*

*Auzitegiko presidenteak sumarioko folio bat erakutsiz: "Hau zure sinadura da?". Lekukoa: "Bai, nire sinadura izango da, nik oso erraz sinatzen baitut edozer. Oraintxe bertan hori sinatzeko esaten badidazu, nik sinatu egingo dizut"*

*Bilboko Auzitegia, 1988ko maiatza*

# FRANTZIAK IJITOAK KANPORATZEA

# LA EXPULSIÓN DE LOS GITANOS POR FRANCIA

Beatriz Barquin Torre.
**Abokatua/Abogada.**

***Uda honetan, zoritxarrez, albiste bat asko entzun da, hain zuzen ere, Frantziako Gobernuak, Nicolas Sarkozy buru dela, Errumaniako eta Bulgariako ijitoak kanporatu dituela.***

*Kanporatzeak 2010eko abuztuaren 19an hasi ziren. Legez kanpoko kanpamenduetan ezarritako ijito errumaniar eta bulgariarrak izan ziren lehenengoak. Frantziako agintariek, kanporatze horiek justifikatzeko, segurtasun-arrazoiak aipatu zituzten; izan ere, legez kanpoko kanpamenduetan ezarritako ijitoen artean indarkeria-gertaerak eta lapurreta batzuk ezagunak izan ziren. Kanporatzeak Frantziako agintariek delinkuentziaren eta legez kanpoko immigrazioaren aurka borrokatzeko planaren barruan sartzen dira.*

*Frantziako agintarien arabera, lehenengo kanporatzeak "borondatez" egin ziren. Errumaniarrei Frantziatik irteteko gonbita egin zitzaien, sorlekuko herrialdera joateko hegazkin txartela ordaintzen zitzaien eta 300 ematen zitzaizkien (100 gehiago haurrik egonez gero) eragindako eragozpenengatik.*

*Nabarmena zen kanporatzeen politika hau neurri oso polemikoa dela eta protesta ugari eragingo zuela. Hala izan da, bai Frantzian eta bai nazioartean ahots askok kritikatu dute Frantziako Gobernuak hartutako erabakia.*

*Frantzian, joan den irailaren 4an, 130 hiritan manifestazioa deitu zen kanporatzeen politika hau kondenatzeko. Manifestazio jendetsua ehun bat erakundek eta GKEek deitu zuten eta ezkerreko alderdi politikoen babesa izan zuen.*

*Kanporatzeen politika istilutsu horrek Sarkozyren gobernua modu esanguratsuan ahuldu du. Irailaren 5ean "Le parisien" frantziar egunkarian argitaratutako inkesta baten arabera, Sarkozy presidenteak ospe indizeetan bi puntu gutxiago ditu kanporatzeen eraginez, eta presidentearen onarpen maila 2007ko ekainetik txikiena da.*

*Atzerritik ere kanporatzeak gogor kritikatu dituzte. Europako Batzordeak oraindik ez du ezer esan, eta kasu honetan gauza asko ditu esateko, izan ere, baliteke Europako Erkidegoko legeak modu esanguratsuan urratzea, batez ere pertsonen joan-etorri askeei dagokienez.*

**Este verano se ha hecho tristemente famosa la noticia de la expulsión de gitanos rumanos y búlgaros por parte del gobierno francés encabezado por Nicolas Sarkozy.**

La expulsiones empezaron el 19 de agosto de 2.010, y se centraron en gitanos rumanos y búlgaros establecidos en campamentos ilegales. Las autoridades francesas justificaron dichas expulsiones por motivos de seguridad ya que se habían protagonizado diversos episodios de violencia y pillaje por parte de gitanos asentados en los campamentos ilegales, y se enmarcaban dentro del plan de lucha contra la delincuencia y la inmigración ilegal aprobado por las autoridades galas.

Las primeras expulsiones, según las autoridades francesas, se produjeron de manera "voluntaria". Se invitaba a los romaníes a abandonar Francia, se les pagaba el billete de avión a su país de origen y se les entregaba las cantidad de 300 (100 más en caso de que hubiera niños) por las molestias causadas.



Era más que evidente que esta política de expulsiones es una medida muy polémica y que iba a generar mucho rechazo. Así ha sido, tanto dentro de Francia como de manera internacional han sido muchas las voces que han criticado duramente la decisión adoptada por el gobierno francés.

En Francia, el pasado 4 de septiembre de convocó una manifestación en 130 ciudades para condenar

esta política de expulsiones. La manifestación multitudinaria fue convocada por un centenar de organizaciones y ONG y fue apoyada por los partidos políticos de izquierdas.

La política de expulsiones ha sido tan controvertida que ha minado de forma significativa al gobierno de Sarkozy. Según una encuesta publicada el 5 de septiembre en el periódico galo "Le parisien" el presidente Zarkozy ha bajado dos puntos en los índices de popularidad debido a la expulsiones y su nivel de aceptación es el más bajo desde Junio de 2.007.

Desde el extranjero han sido también duramente criticadas las expulsiones. Aunque no se ha pronunciado la Comisión Europea, tendría mucho que decir ya que se podrían estar violando de forma significativa leyes comunitarias, sobre todo en lo referente a la libre circulación de personas.

Las autoridades francesas alegan en su defensa, ante los órganos de la Unión Europea, que las expulsiones han sido estudiadas caso por caso y que la mayoría de ellas han sido voluntarias.

A pesar del revuelo el Departamento jurídico de la Comisión Europea sigue elaborando un informe político y jurídico sobre las expulsiones en Francia y su compatibilidad con las normas europeas. Dicha tibieza y tardanza en la toma de decisiones sobre la legalidad de las expulsiones por parte de la Comisión ha provocado duras críticas por parte de los partidos de izquierdas, los verdes y los liberales del Parlamento Europeo.

Mientras tanto las expulsiones se siguen produciendo y el responsable internacional de la "Unión Romaní", Juan De Dios Ramírez Heredia, eurodiputado socialista, ha anunciado que denunciará las expulsiones ante el Tribunal de Justicia de la Unión Europea.

En todo caso parece que estas medidas restrictivas de derechos de los inmigrantes se han vuelto habituales, recordemos el caso de Italia que sigue también una política de inmigración muy dura, y se ven enmarcadas dentro del contexto de crisis que vivimos. Son medidas extremas y difíciles de entender dentro de un estado de derecho porque vulneran los derechos de colectivos enteros.

Parece que la última palabra la tiene la Comisión Europea en su manos está decidir que clase de política de inmigración regirá en europea durante los próximos años, esperemos que ponga freno a esta tendencia a las expulsiones de inmigrantes.




*Frantziako agintariek Europar Batasuneko organoen aurrean esan dute kanporatzeak kasuz kasu aztertu dituztela eta gehienak borondatezkoak izan direla.*

*Hori guztia gorabehera, Europako Batzordeko Arlo Juridikoa Frantziako kanporatzeei eta horrek Europako arauekin duen bateragarritasunari buruzko txosten politiko eta juridikoa egiten ari da. Batzordeak kanporatzeen legezkotasunaren inguruan erabaki epelak eta oso berandu hartu dituenez, kritika gogorrak jaso ditu Europako Parlamentuko ezkerreko alderdien, berdeen eta liberalen aldetik.*

*Bitartean, kanporatzeak egiten jarraitzen dute eta "Unión Romaní" izenekoaren nazioarteko arduradunak, Juan De Dios Ramírez Herediak, eurodiputatu sozialistak, kanporatzeak Europar Batasuneko Justizia Auzitegian salatuko ditu.*

*Edonola ere, itxuraz, immigranteen eskubideak murrizteko neurri hauek ohikoak bihurtu dira. Gogoan izan dezagun Italiaren kasua. Italian immigrazio-politika oso gogorra dago, eta bizi dugun krisi testuinguruaren barruan sartzen da. Muturreko neurriak dira eta zuzenbideko estatuan ulertzeko zailak, kolektibo osoen eskubideak urratzen dituztelako.*

*Badirudi azken hitza Europako Batzordeak duela. Batzordearen esku dago datozen urteetan Europan zein immigrazio politika erabiliko den erabakitzea. Espero dezagun immigranteak kanporatzeko joera hau eten dezala.*

# *KAPITAL SOZIETATEEN LEGEA*

# LEY DE SOCIEDADES DE CAPITAL

Nahia Llona
**Abokatua/Abogado.**




***Joan den uztailaren 3an, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Kapital Sozietateen Legearen (KSL) testu bategina onesten duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua argitaratu zen. Modu horretan, Egitura Aldaketen Legera (EAL) bildutakoa bete zen, azken horretan Gobernuari gaitasuna eman baitzitzaion testu bakarrean biltzeko Sozietate Anonimoen Legea (SAL), Erantzukizun Mugatuko Sozietateen Legea (EMSL) –biak indargabetu egin dira-, Balioen Merkatuaren Legea (BML), sozietate anonimo kotizatuei buruzko atalari dagokionez, eta akzio bidezko sozietate komanditarioei buruzko Merkataritza Kodeko artikuluak.***

*Lan hori egin ondoren, Ministroen Kontseiluak onetsitako testua joan den irailaren 1ean jarri zen indarrean, sozietate anonimo kotizatuetan botoa ematekо eskubidearen estatutu-mugei buruzko 525. artikulua izan ezik. Artikulu hori ezin izango da aplikatu 2011ko uztailaren 1era arte.*

**El pasado 3 de julio, se publicó en el Boletín Oficial del Estado el Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital (LSC), dando así cumplimiento a la previsión recogida en Ley de Modificaciones Estructurales (LME), en la que se habilitaba al Gobierno para refundir, en un texto único, la Ley de Sociedades Anónimas (LSA), la Ley de Sociedades de Responsabilidad Limitada (LSRL) - que quedan íntegramente derogadas- así como la parte de la Ley del Mercado de Valores (LMV) relativa a las sociedades anónimas cotizadas y los artículos del Código de Comercio dedicados a las sociedades comanditarias por acciones.**

Atendido su cometido, el articulado aprobado por el Consejo de Ministros entró **en vigor** el pasado 1 de septiembre, a excepción de su artículo 525, sobre las limitaciones estatutarias del derecho a voto en las anónimas cotizadas, que no será de aplicación hasta el próximo 1 de julio de 2.011.

El **objetivo** prioritario de este Texto no es otro que superar las descoordinaciones, imperfecciones y lagu-



nas que en los últimos años habían ido surgiendo, consecuencia de las abundantes modificaciones de que ha sido objeto la legislación mercantil en la última década, para lo cual se ha refundido en un único cuerpo legal toda la regulación general de las sociedades de capital, a salvo la relativa a sus modificaciones estructurales, recogida en la LME, cuya aplicación a todas las sociedades mercantiles (incluidas las personalistas) impedía que se incluyera en la refundición.

Dicho esto, la mayor novedad de la Ley es precisamente esa, que rompe con la tradicional regulación separada de la legislación societaria española, y se suma a la tendencia legislativa de unificar en un mismo texto toda la normativa sobre sociedades. Ahora bien, partiendo de esta idea, y de que el Texto Refundido no es un vehículo para operar una reforma sustancial, la LSC encierra otros cambios dignos de mención, derivados esencialmente de su reordenación sistemática y de la generalización normativa de soluciones, originariamente establecidas para una sola de las sociedades de capital, a las demás.

Con la reorganización sistemática de los textos que refunde, la LSC quiere subrayar la unidad sustancial existente entre las distintas formas de sociedades de capital. Así la nueva ley se presenta dividida en títulos en los que se aborda, de forma general para todas las sociedades de capital, la regulación de las distintas materias (desde la constitución de la sociedad hasta su disolución y liquidación), consignando dentro de cada capítulo o sección, las especialidades de cada forma social, evitando así las remisiones.

Por lo demás, encontramos otra serie de **novedades**, entre las que, sin ánimo de ser exhaustivos, cabe destacar:

- La modificación del **capital social mínimo** de las sociedades, que pasa a ser 3.000 euros en las sociedades de responsabilidad limitada y 60.000 en las anónimas.

- El traslado de la fecha de **inicio de operaciones**, que salvo disposición contraria de los estatutos, será la fecha de otorgamiento de la escritura de

*Testu horren **helburu** nagusia da azken urteetan merkataritza-legeriak izandako aldaketen ondorioz sortu diren koordinaziorik ezak, inperfekzioak eta hutsuneak gainditzea. Horretarako, kapital sozietateen arauketa orokor guztia testu bakarrean bildu da, egitura-aldaketei buruzkoa izan ezik, EALera bilduta dagoena; izan ere, aldaketa horiek merkataritza sozietate guztiei aplikatzea (pertsonalistak barnean hartuta) testu bakarrera biltzeko eragozpena baitzen.*

*Legearen berrikuntza nagusia horixe da, Espainiako sozietate-legerian bereizita zegoen arauketa tradizionala hausten duela eta sozietateei buruzko araudi guztia testu bakarrean bateratzeko legegintza-joerari jarraitzen diola. Ideia hori eta testu bategina funtsezko eraldaketa egiteko tresna ez dela oinarri hartuta, KSLk aipatzeko moduko beste aldaketa batzuk ditu, batez ere berrantolaketa sistematikoa egiten duelako eta kapital sozietate bakar baterako ezarritako konponbideak beste guztietara orokortzen dituelako.*

*KSLk biltzen dituen testuen berrantolaketa sistematikoa eginda, kapital sozietateen mota desberdinen artean dagoen funtsezko batasuna azpimarratu nahi du. Modu horretan, lege berria tituluetan zatituta dago, eta, horietan, kapital sozietate guztietarako modu orokorrean, arlo desberdinen arauketa egiten da (besteak beste, sozietatea eratzea, desegitea eta likidatzea), eta kapitulu edo atal bakoitzaren barruan sozietate bakoitzaren espezialitateak kontsignatzen dira, modu horretan beste testu batzuetara igortzea saihestuz.*

*Beste **nobedade** batzuk ere aurkituko ditugu, eta zehatzak izateko asmorik gabe, hurrengoak azpimarratuko ditugu:*

- *Sozietateen **gutxieneko kapital soziala** aldatzea: erantzukizun mugatuko sozietateetan 3.000 eurokoa izango da, eta 60.000 eurokoa sozietate anonimoetan.*



- ***Eragiketak hasteko data*** *aldatzea. Estatutuetan aurkakorik ezartzen ez bada, data hori eratze eskritura egilesten den data izango da, inskribatzeko data izan beharrean, orain arte bezala.*

- ***Estatutuen edukiari dagokionez****, sozietate mugatuetan ez da beharrezkoa ekitaldiaren itxierako data gehitzea. Estatutuetan besterik esaten ez bada, urte bakoitzeko abenduaren 31a izango da, baina akzioen zenbakikuntza korrelatiboa adierazi behar da.*

*Bestalde, sozietate anonimoetan ere ez da beharrezkoa sozietatearen edo organo eskudunaren iraupena kontsignatzea sukurtsalak sortu, ezabatu edo lekualdatzeko, estatutu-aipamen horiek KSLren 25. eta 11.2 artikuluetan ezarritakoarekin ordezten baitira.*

- *Testu bateginak* ***sozietate taldearen*** *kontzeptua ere arautzen du, Merkataritza Kodearen 42. artikulura bildutako talde kontzeptura igorriz. Sozietate nagusia zuzenean edo zeharka gainerakoen gaineko kontrola duena edo izan dezakeena dela ezarri da. Kontzeptu horiek KSL-k arautută sozietate guztietara hedatzen dira.*

- ***Partaidetzen eskualdaketari*** *dagokionez, KSL-k esanbidez eta izaera orokorrarekin debekatu du erantzukizun mugatuko sozietate baten estatutuek sozietateko kontu-ikuskariari esleitzea sozietateko partaidetzen arrazoizko balioa finkatzeko eginkizuna, eskualdaketaren ondoreetarako.*

- ***Sozietatearen kapitala handitu eta murrizteko,*** *sozietate anonimoaren arau batzuk sozietate mugatura hedatzen dira, horien zurruntasuna handituz.*

*Modu horretan, SMko kapitala handitzeko, erreserben edo mozkinen kargura, ikuskariaren txostena eskatuko da eta lehenespenez harpidetzeko eskubidea diruzko ekarpenekin egindako kapital handitzeetan soilik gauzatu ahal izango da.*

*Bestalde, legearen arabera sozietateen forma guztiek kapitala murriztu dezakete lege-erreserba edo borondatezko erreserbak eratzeko edo handitzeko, baina kapitala murriztu ondoren, lege-erreserba kapital berriaren %10 izan beharko da sozietateak dibidenduak banatu ahal izateko.*

- *Gainera, legeak* ***Batzar Nagusiaren*** *eskumena zehazteko beharrari erreparatzen dio. Sozietate anonimoetara hedatu du EMSL modernoenean zegoen zerrendapena, eta deialdi judizialaren eta administrazio organoko kide guztiek edo gehienek kargua uzten duten kasurako deialdi bereziaren araubidea ezarri du.*

constitución, en lugar de la de su inscripción, como venía siendo hasta ahora.

- Respecto al **contenido de estatutos**, en las limitadas no será ya necesario incluir la fecha de cierre del ejercicio, que, a falta de disposición estatutaria, se presume es el 31 de diciembre de cada año, pero deberá expresarse la numeración correlativa de las acciones.

Por su parte, en las anónimas, tampoco será preceptivo consignar la duración de la sociedad o el órgano competente para la creación, supresión o traslado de sucursales, menciones estatutarias que vienen suplidas por lo dispuesto en los artículos 25 y 11.2 de la LSC.

- El texto refundido regula también el concepto de **grupo de sociedades**, por remisión al concepto de grupo recogido en el artículo 42 CCo, y establece que será sociedad dominante la que ostente o pueda ostentar, directa o indirectamente, el control sobre las demás, conceptos que se extienden a todas las sociedades reguladas por la LSC.



- En lo que respecta a la **transmisión de participaciones**, la LSC prohíbe expresamente y con carácter general que los estatutos de una sociedad de responsabilidad limitada atribuyan al auditor de cuentas de la sociedad la fijación del valor razonable de las participaciones sociales a efectos de transmisión.

- En sede de **aumento y reducción de capital social**, se extienden de forma relevante ciertas reglas de la sociedad anónima a la sociedad limitada, incrementando su rigidez.

Así, en los aumentos de capital de la SL con cargo a reservas o beneficios, se exigirá un informe de auditor y sólo se podrá ejercitar el derecho de suscripción preferente en los aumentos de capital con aportaciones dinerarias.

Por otra parte, la ley permite a todas las formas sociales la reducción de su capital para la constitución o incremento de la reserva legal o de las reservas voluntarias, si bien, una vez reducido el capital, la reserva legal deberá alcanzar el 10% del nuevo capital para que la sociedad pueda repartir dividendos.

- La ley atiende asimismo la necesidad de determinación de la competencia de la **junta general**, generalizando a las sociedades anónimas la enumeración que ya existía en la más moderna LSRL, y establece con carácter general su régimen de convocatoria judicial y de la convocatoria especial en caso de cese de todos o de la mayoría de los miembros del órgano de administración.

- Por último, en lo que a los **administradores sociales** respecta, la LSC extiende a los administradores de las limitadas los deberes recogidos en la denominada Ley de Transparencia, y les obliga a informar al consejo de administración sobre las situaciones de conflicto con el interés de la sociedad, debiendo esta información incluirse en la memoria. En cuanto a su retribución, la LSC acoge el criterio establecido en la LRSL y lo extiende a las anónimas, de modo que si la retribución de los administradores no se basa en la participación en beneficios, deberá ser fijada por la junta general para cada ejercicio de conformidad con lo previsto en los estatutos.

Con todas sus novedades, y con las controversias que, con toda probabilidad, estas suscitarán en el futuro, no cabe duda de que la LSC es la norma estrella publicada este verano en materia mercantil.

